



ITSASONDO BIZIMODU DUINAREN HERRIA

Ongizate Batzordearen plangintza
estrategikoa
2023



**ITSASONDOKO
UDALA**

 **FARAPI KOOP.**

AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	3
2.	NONDIK ERAGIN NAHI DUGU PLANGINTZA HONEKIN?	4
3.	EKINTZA PLANA	6
	Planaren inguruko hainbat ohar	6
	JATORRI eta KULTUR ANIZTASUNA	7
	ETXEbizITZA.....	11
	ZAHARTZAROA	13
4.	PLAN OPERATIBOA BEGIRADA BATEAN	16
	URTEROKO EKINTZAK, IZAERA PROZESUALA DUTENAK EDO ERREPIKAGARRIAK DIRENAK ...	16
	2024.....	18
	2025.....	19
	2026.....	19
	2027.....	20
5.	PLANAREN JARRAIPEN SISTEMA	21
6.	ERANSKINAK.....	28
	1.go eranskina: HARRERA EGUNAREN DISEINUA	29
	2. eranskina: ETXEBIZITZEN INGURUKO DATUAK	31



1 . SARRERA

Plangintza honetan jasotzen dugu, Itsasondoko Ongizate Batzordearekin elkarlanean, ***“Itsasondo bizimodu duinaren herria”*** izan dadin egin dugun prozesuaren emaitza. Emaitza hau lortzeko lan-prozesuaren diseinua bera, Ongizate Batzordeko kideekin eta ongizate politikekiko interesa duten herritarrekin osatu zen. Ko-diseinu fase hau ezinbestekoa izan da Plan Estrategiko honek Itsasondoko errealitateari eta Ongizate Batzordeko beharrei erantzuten diela bermatzeko.

Udal politiketan funtsezko ardatza da Ongizatea. Herritarren bizimoduan zuzen-zuzenean eragiten duten neurri eta programak biltzen baitira ongizate politiketan. Beraz, lanketaren helburu nagusia, Itsasondon hurrengo urteetako ibilbidea marraztuko duen plangintza bat osatzea izan da, herriaren eta herritarren beharretatik abiatuz, herriko errealitateari erantzungo dion lan-tresna bat sortzea..

Ongizate Batzordearen plangintza izan arren, herritarren bizimodua duintzeak udal arlo guztien inplikazioa eskatzen du. Zentzu honetan, plangintza osatzeko prozesuan zehar, beste udal arlo batzuetako ordezkartzeekin ere lan egin da, bereziki Hirigintza eta Herri Bizitzarekin. Planean zehar jasotzen diren hainbat ekintzek lankidetzak honekin jarraitzea eskatzen dute.

Plan estrategikoan jasotzen diren lan-lerro eta ekintzak gogoeta sakon baten emaitza dira. Lehen urrats moduan ongizateaz ulertzen duguna definitu genuen kolektiboan. Hurrengo atalean (Nondik eragin nahi dugu plangintza honekin?) azaltzen den ikuspegia adostu genuen eta begirada horren pean osatu dira planak jasotzen dituen lerro edo esku-hartze fokoak. Begirada edo marko orokor horrek gidatu du plana osatzeko bidea, begiradan jasotakoa ekintzetan modu koherentean jasotzen zela bermatzeko. Beraz, ezinbestekoa da uneoro presente izatea, modu esplizituan zein zeharka.

Plangintzak, Ongizate Batzordearentzat lan-tresna ulergarri eta erabilgarri bat izan nahi du. Hau horrela izanik lehenetsitako lan-lerro edo foko bakoitzari lotuta helburu orokorrak, ekintza eta azpi-ekintzak, arduradunak eta aliantzak, baliabideak, denborak, irizpideak eta izara jaso dira.

2. NONDIK ERAGIN NAHI DUGU PLANGINTZA HONEKIN?

Ongizatea oso termino zabala da, ongizateaz ari garenean dimentsio anitzak aintzat hartzen dituen egoera eta bizipenez ari gara. Ongizate Batzordearen plangintza estrategikoaren testuinguruan garrantzitsua da ongizatea nola ulertzen dugun definitzea, hau da, ongizateari zein ikuspegitik begiratzen diogun argitzea. Ongizatea ulertu eta ikusteko modu honek eragin zuzena izango baitu Batzordetik abian jartzen ditugun estrategia, lan lerro eta ekintzetan.

Ongizatearen ikuspegi zabaletik abiatzen bagara, **oinarrizko beharrak** (elikadura, etxebizitza, argindarra, eskolaratzea, dependentziarako zaintzak, etab.) **asetuak izateaz gain, bestelako behar batzuk ere kontenplatu beharko genituzke; komunitate baten parte-izatea, aisialdia, atsedena, lotura sozial eta afektiboak, etab.**

Udalek herritar ororen oinarrizko beharrei erantzuteko erantzukizuna dute eta, hein handi batean, Gizarte Zerbitzuetatik egiten den lanari esker erantzuten zaio zeregin honi (baliabide mugez kontziente izanik ere). Baina herritarren ororen ongizate integrala ez da soilik udal-ardura, **komunitate osoaren ardura** da. Zentzu honetan ongizaterako **estrategia publiko-komunitarioak** indartu behar dira. Eragile eta herritar bakoitzak, dagoen tokitik, herri ongizateari eta herritarren duintasunari ekarpena egiteko aukera izan dezan.

Estrategia hau lurreratzen joan gara prozesu osoan zehar. Estrategia publiko-komunitarioaren artikulazioa presente izan dugu beraz plangintza osatzerakoan. Gainera, estrategia publiko-komunitario honi, **irizpide konkretu batzuk** batu dizkiogu, plan estrategikoan jasotzen diren helburu eta ekintzek **balio multzo bati** erantzuten diotela bermatzeko.

Hona hemen lan-taldean adostutako irizpideak:

EKITATEA_AUKERA BERDINTASUNA
Itsasondoar guztiok eskubide politiko, zibil, ekonomiko, sozial, kultural, eta arauetan ager daitezkeen gainerako oinarrizko eskubideak, berdintasun-egoeran erabili ahal izateko egingo dugu lan. Horretarako, ulertzen dugu, pertsona guztiok ez ditugula behar berdinak eta pertsona bakoitzaren abiapuntuko egoera ezberdina dela. Beraz, aukera berdintasuna bermatu dadin, ezinbestekoa izango da abiapuntuko desabantaila hauek berdintzen dituzten neurri zehatzak martxan jartzea.
INKLUSIOA
Jarrera aktiboa izango dugu Itsasondon bizi garen herritar guztion mundu ikuskera, arau eta sinesmenak aitortu eta balioan jartzeko. Aitortza honetatik aukera eta eskubide berdintasuna bultzatuko dugu.
KULTURARTEKOTASUNA
Herriko kultur-aniztasuna herriko aberastasun moduan ulertzen dugu, beraz, bizikidetza positibotzat jo eta bultzatzeko hautu filosofiko eta politikoa egin dugu.
BELAUNALDIARTEKOTASUNA
Adin ezberdineko herritarren arteko hartu-emana bultzatu nahi dugu, ezagutza, esperientzia eta bizipenak partekatzeko berariazko espazioak sortuz. Elkarlan espazio hauei esker adin-tarte bakoitzari dagozkion estereotipoak gainditu nahi ditugu, itsasondoar bakoitzaren garapen pertsonalean sakontzeko.
ELKAR-EZAGUTZA
Herria osatzen dugunon aniztasuna balioan jarri eta hausturak saihesteko, elkar-ezagutza bultzatzea ezinbestekotzat jotzen dugu.
KOHESIOA
Herri bat, komunitate bat osatzeko ezinbestekoa da kohesioa. Elkar-ezagutza eta elkarren aitortza abiapuntuan izango dituen herri dinamika bat sustengatzen lagunduko dugu. Ulertuta, komunitatearen parte sentitzeak herritarron ongizatean eragin positiboa

Beraz, plangintza estrategiko honetan, Itsasondoarren Ongizateari ikuspegi zabaletik erantzuteko hautua egin dugu. Ikuspegi honek, artikulazio publiko komunitarioa eskatzen du, irizpide edo balio multzo bati erantzungo dion artikulazioa hain zuzen ere.

3. EKINTZA PLANA

Itsasondon, ongizateari begira hurrengo urteotan egingo dugun lanaren bideorri izan nahi duen plangintza osatzerako orduan, ezinbestekotzat jo genuen bereziki hiru foko lehenestea: **ETXEBIZITZA, JATORRI ETA KULTUR ANIZTASUNA** eta **ZAHARTZAROA**. Ongizate Batzordeko kideekin batera adostu ziren hiru foko edo lan-ardatz hauek.

Plan Estrategikoan hiru foko gisa banatu badira ere, nabarmena da hirurak elkar-gurutzatzen direla eta elkarren artean eragiten dutela.

Plan Estrategikoaren edukietan buru-belarri sartu aurretik, garrantzitsua iruditzen zaigu planaren diseinuari dagozkion hainbat ohar aurreratzea.

*****Planaren inguruko hainbat ohar*****

Plangintzak, tresna ulergarri eta erabilgarri bat izateko, egitura jakin bati erantzuten dio:

- **Foko bakoitzaren testuinguruaren deskribapena:** Hiru foko edo lan-ardatzaren hasieran, ardatz hori lantzeko behararen inguruko sarrera labur bat jasotzen da. Sarrera hau, lan-prozesuan parte hartu duten ongizate batzordeko kideen eta herritarren ezagutzatik abiatuta osatu da. Testuinguruaren deskribapen honen helburua ez da izan diagnosi zorrotz bat egitea, erantzun nahi den erronka kokatzea baizik.
- **Helburu nagusiak:** Foko bakoitzaren garapenerako beharrezkoak diren helburu nagusiak definitu dira.
- **Ekintza eta azpi ekintzak:** Definitu den helburua betetzeko beharrezkoak diren ekintza eta azpi ekintzak zerrendatzen dira helburu bakoitzeko. Ekintza eta azpi-ekintza bakoitzak, ondorengo zehaztapenak jasotzen ditu:
 - **Arduradun eta aliatuak:** Ekintza bakoitza aurrera eramateko arduradun bat izendatzen da. Arduradunaz gain, ekintzaren konplexutasunaren arabera, aliatuak ere izendatzen dira.
 - **Baliabideak:** Ekintza hori aurrera eramateko beharrezkoak diren baliabideak (ekonomikoak zein tekniko-materialak) jasotzen dira.
 - **Denborak:** Ekintza egingo deneko denbora tartea zehazten da.
 - **Izaera.** Ekintzaren izaera definitzen da. Zenbait ekintza puntualak dira; hau da, hasi eta amaitu egiten dira. Ekintza puntual hauek, behin egitearekin amaitutzat joko badira ere, izango dira izaera puntual errepikagarria dutenak; hau da, urtez urte errepikatuko direnak. Bestetik, prozesu izaera duten ekintzak ere jasotzen ditu planak; nolabait esateko, hurrenkera batean oinarritutako ekintzak, esperientzien eta ezagutzen metaketa batean oinarrituta egongo direnak. Azken hauek azpimarratu nahiko genituzke, bereziki, Itsasondon ongizatearen ikuspegia modu integral eta sistemiko batean txertatzeko ezinbestekoak izango direlako.

JATORRI eta KULTUR ANIZTASUNA

Jatorri eta kultur aniztasunari dagokionez, azken urteetan jatorri ezberdinetako herritar ugari iritsi dira Itsasondora. Eustaten 2022ko datuen arabera, Itsasondon bizi direnen %14,8ak jatorri atzerritarra¹ du. Ordiziarekin batera (%18,8), Gipuzkoako migrazio tasarik altuenetakoa duen herria da, Gipuzkoako eta EAEko tasen batz bestekotik (%11,7 bietan) dezente gainera.

Errealitate honek aberastasun ugari badakartza ere, zenbait erronka ekarri ditu herrira; batzuk momentukoak eta epe-ertain luzekoak besteak. Prozesuan zehar honako hauek identifikatu ditugu:

- **Jatorri ezberdinetako herritarrek herri bizitzan aktiboki parte-hartzea.** Adin-tarte guztietako atzerritarren parte-hartzearen inguruko kezka dago.
- **Euskalduntzearen** inguruko kezka, bereziki haurrekin lantzekoa, baina ezinbestean parte-hartze komunitarioarekin josi beharrekoa.
- **Etxebizitzari** dagozkion erronkak, etxebizitzaren atalean jaso ditugunak.
- **Harrera herria / harrera eguna.** Jada urtero ospatzen den Harrera Egunetik abiatuta harrera estrategia bat ere diseinatu nahi izan dugu, estrategia horrek aurrez aipatutako erronka guztiak barnebildu nahi izan ditu.

Identifikatutako ideia hauetatik abiatuz, **3 helburu nagusi** adostu ditugu:

1. Itsasondora bizitzera etortzeko hautua egin dutenei ongietorria ematea.
2. Integraziotik inklusiorako bidea egiteko baldintzak, baliabideak eta tresnak jartzea.
3. Itsasondoko bizitza-soziala kultur eta jatorri aniztasunaren ikuspegitik egokitzea.

¹ Estatu espainiarretik kanpokoak.

1. HELBURU NAGUSIA: Itsasondora bizitzera etortzeko hautua egin dutenei ongietorria ematea					
<u>HARRERA EGUNAREN bidez, urtebeteko epean (ekainetik-ekainera) Itsasondora etorri diren herrikide berriei harrera egitea</u>					
EKINTZA eta AZPI-EKINTZAK (urratsak)		ARDURAK ETA ALIANTZAK	BALIABIDEAK	DENBORAK	PUNTUALA /PROZESUALA
1.1	Erroldatu berriak identifikatu**(erroldatu berri guztiak identifikatzen direla bermatuz).	Ongizate Batzordea eta Udal Harrera langilea		Maiatza	Puntuala, urterokoa
1.2	Itsasondori buruzko oinarritzko informazioa jasotzen duen mapa bisuala egin (gidarako zein haundian jartzeko).	Ongizate Batzordea	Aurrekontua	2024	Puntuala
1.3	Gidaren errebisio eta egokitze lana egin (besteren artean, mapa txertatzea) eta dagozkion hizkuntzetara itzuli.	Ongizate Batzordea		Ekaina hasiera	Puntuala, urterokoa
1.4	Gonbidapen deiak egin.	Gizarte Langilea		Ekaina hasiera	Puntuala, urterokoa
1.5	Familia etorri berriei Udaletik egin zaien gonbidapena berretsi, erreforzatu.	Eskola		Ekaina hasiera	Puntuala / urterokoa
1.6	Jasotako baieztapenen arabera gidak prestatu (kopurua/hizkuntzak)	Ongizate Batzordea		Harrera eguna baina astebete lehenago	Puntuala, urterokoa
1.7	“Harreragileak” ² identifikatu eta hauekin Harrera Egunari dagozkion zereginak lotu.	Ongizate Batzordea		Harrera eguna baina astebete lehenago	Puntuala, urterokoa
1.8	Harrera eguna ospatu ³ .	Ongizate Batzordea		Ekaina	Puntuala, urterokoa
1.9	Harrera egunaren ebaluaketa egin.	Ongizate Batzordea		Ekaina	Puntuala / urterokoa
1.10	**Oharra: Ongizate batzordeko kideek hilero egingo dute herrira etorritakoen jarraipena. Herritar berriren bat identifikatuz gero, hurrengo Ongizate batzorderako gonbitea luzatuko zaie, saioaren hasieran ongietorrirako kokapena egingo delarik.	Ongizate Batzordea		Hilabetero	

² Garrantzitsua litzateke “Harreragileen” artean, aurreko urteetan Itsasondora etorritakoren bat egotea.

³ Ikus Harrera Egunaren diseinua jasotzen duen Karta Didaktikoa.

2. HELBURU NAGUSIA: Integratziotik inklusiorako bidea egiteko baldintzak, baliabideak eta tresnak jartzea					
Itsasondoko jatorri eta kultur aniztasunaren ezagutza					
EKINTZA eta AZPI-EKINTZAK (urratsak)		ARDURAK ETA ALIANTZAK	BALIABIDEAK	DENBORAK	PUNTUALA /PROZESUALA
2.1	Herriko aniztasunaren ezagutzatik abiatuko gara, errealitatean sakonduz: - Ze komunitate daude herrian? Zeintzu dira beraien ezaugarri nagusiak? - Komunitate bakoitzeko biztanle kopurua, sexuaren eta adinaren arabera. - Non daude herrian kokatuta? Etxebizitzak, aisialdirako eremua - Komunitate bakoitzeko erreferentziazko pertsona/k	Bizikidetza Gizarte langilea			Puntuala, urterokoa
2.2	Erne, adi egon berariazko ekintzak antolatzeke jatorri anitzeko itsasondoarren ezagutza sakontzeko; hitzaldiak, jaialdiak...				Puntuala, urterokoa
Herriko eragileekin aniztasunaren begiradaren lanketa					
EKINTZA eta AZPI-EKINTZAK (urratsak)		ARDURAK ETA ALIANTZAK	BALIABIDEAK	DENBORAK	PUNTUALA /PROZESUALA
2.3	Herrian existitzen diren eragileekin formakuntza/sentsibilizazio kanpaina bat egingo da, begirada kultur-anitza txertatzearen inguruan. Aurretik egindako errealitatearen azterketaren emaitzak hartuko dira oinarri moduan.	Ongizate Batzordea	Aurrekontua	2024	Puntuala

3. HELBURU NAGUSIA: Itsasondoko bizitza-soziala kultur eta jatorri aniztasunaren ikuspegitik egokitzea					
Itsasondon antolatzen diren ekimenetan begirada kultur-anitza txertatu eta partaidetza anitza bultzatzea					
EKINTZA eta AZPI-EKINTZAK (urratsak)		ARDURAK ETA ALIANTZAK	BALIABIDEAK	DENBORAK	PUNTUALA /PROZESUALA
3.1	<u>GAU BELTZA:</u> Ospakizunaren esanahiari dagokionez: 1. Itsasondon elkarbizitzen dauden herri ezberdinetan gau honen bueltan ospatzen dituzten erritual eta ohitura ezberdinak ezagutu. 2. Ondoren, egingo diren antzerkietan gaia txertatu. 3. Helburua, gune propioa izatea bakoitzak. Partaidetzari dagokionez: 4. Ohituraren nondik norakoak azaldu eta antzerkietan parte hartzera gonbidatu. ADI! Integraziotik inklusiorako ibilbidea izan behar da, ezin da integrazioan gelditu.	Guraso elkarteak Antzerkiak pentsatzen dituen arduraduna		Urria	Puntuala, urterokoa
3.2	<u>IKASTURTE BUKAERAKO BAZKARIA:</u> Jatorri aniztetako gurasoak jakien prestakuntzan parte hartu dezaten animatzea, beren herrialdeetako jakiak guztion artean prestatuz.	Guraso elkarteak		Ekaina	Puntuala, urterokoa
3.3	<u>SAN JUAN SUA:</u> Gau beltzarekin egin den moduan, ohituraren nondik-norakoan azalpenarekin batera, parte hartzeko gonbita luzatuko zaie jatorri anizteko herritarrei. Baina, aldi berean, jatorrizko herrietan nola ospatzen duten ezagutu eta pixkanaka herriko ospakizunetan nola txertatu aztertuko da.	Gazte taldea		Ekaina	Puntuala, urterokoa
3.4	<u>TALO IKASTAROA ETA JANA:</u> Irinarekin egiten diren talo/opil/ogiak herrialde gehienetan prestatzen diren jakiak izanik, ikastaroan hauen prestakuntza ere txertatuko da (urteko 1). Talo jana egiterakoan ere prestatu eta konpartituko dira prestatutakoak.	Udala Herribizitza		Abendua	Puntuala, urterokoa
3.5	<u>JAIEN OSTEKO PINTXOPOTEA:</u> (jaiak bukatuta, hurrengo 4 ostiraletan) Jaietarako janaria prestatzeko tokia aprobetxatu jatorri anizteko herritarrek beren pintxo propioak prestatu eta saltzeko aukera izan dezaten (edaririk ez). Ekimena girotzeko <i>playlist kultur-anitza</i> prestatuko da; jatorri anizteko herritarrei animatuko zaie playlist horretan beren herrietako gustuko abestiak txertatzeko.	Elkarteak, tabernak, jubilatua			

Estrategikotzat jo da landutakoa HERRI BIZITZAko taldearekin konpartitzea, ekimen hauetako askoren antolakuntzan ari baitira. Hala, erresistentziak ekiditeko modu ona izan daiteke.

ETXEBIZITZA

Etxebizitzaren gaia Ongizate batzordeak mahaiaren gainean jarritako 2. fokoa izan da Etxebizitzarena. Hasiera batean, honako erronka hauek identifikatu dira, bereziki egoera zaurgarrian dauden pertsonentzako etxebizitza duinak eskuratzeko helburuz:

- Aipatu da Itsasondon bizi diren **jatorri anitzetako familiak**, oro har, baldintza eskasetan dauden etxebizitzaren bizi direla (bereziki alokairua inguruko herrietan baina merkeagoa izateak erakarri ditu Itsasondora). Etxebizitzaren egoera dela eta joan-etorri ugari izaten dira eta zaila suertatzen da herriarekiko eta herri bizitzarekiko atxikimendua lortzea.
- **Dependentzia egoeran dauden edo dependentzia egoerara gerturatzen ari diren** adinekoen kasuan, etxebizitzaren iragarritasuna (igogailua) da erronka nagusia.
- **Herritar gazteen emantzipazioa** da etxebizitzari lotutako azken erronka.

Hortik harago, datuetan sakonduta, honako errealitate honekin egin dugu topo:

- * Itsasondon 123 eraikin daude guztira.
 - Bizikidetzaren unitatearen bakarrekoak 30 dira (eraikin guztien %24a).
 - Unitate anitzeko 93 eraikinetan (eraikin guztien %76) 296 etxebizitza partikular daude. Hauetatik:
 - Soilik %13,98ak dauka igogailua.
 - %22,97a hutsik dago.

[Datu gehiago 2. eranskinean]

Prozesu honekin paraleloan, Hirigintza batzordea **Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailarekin** ari da hartu-emanen, epe ertain-luzera begira, Itsasondon babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzearen inguruan.

Guzti hau abiapuntu hartuta, honako helburu estrategiko hauek zehaztu ditugu hurrengo urteotan Itsasondon etxebizitzaren gaiari heltzeko:

1. Itsasondok, etxebizitzari dagokionean, dituen beharrak identifikatzea
2. Herritarrek errealitatearen kontzientzia hartu dezaten azterketaren sozializazioa eta interbentzio mota ezberdinen kontrastea.
3. Epe ertain-luzera, babes ofizialeko etxebizitza berrien eraikuntza.

Jarraian, puntuz puntu, helburu bakoitzari lotutako zehaztapen gehiago:

4. HELBURU OROKORRA: Itsasondok, etxebizitzei dagokionean, dituen beharrak identifikatzea					
<u>Itsasondoko etxebizitzaren inguruko errealitatearen ezagutza sakontzea.</u>					
EKINTZA eta AZPI-EKINTZAK (urratsak)		ARDUR. ETA ALIAN.	BALIABIDEAK	DENBORAK	PUNT/PROZES
4.1	Etxebizitzaren eta beren egoeraren inguruko azterketa egin. Besteak beste, honako elementu hauek jasoz: - Irisgarritasunaren lehen analisi - Etxebizitza hutsen egoera, hutsik egoteko arrazoiak, okupaziorako beharrak... - Ilogailuen instalakuntzari begira: - o Komunitateetan egon ahal izan diren saiakerak - o Identifikatzen diren korapiloak	Hirigintza eta Ongizate Batzordea	4.235 €	2024	Puntuala

5. HELBURU OROKORRA: Herritarrek errealitatearen kontzientzia hartu dezaten azterketaren sozializazioa eta interbentzio mota ezberdinen kontrastea					
<u>Etxebizitzari begira, ohitura aldaketa sustatzea.</u>					
EKINTZA eta AZPI-EKINTZAK (urratsak)		ARDUR. ETA ALIAN.	BALIABIDEAK	DENBORAK	PUNT/PROZES
5.1	Aurretik egindako azterketaren emaitzen sozializazioa egin, kontzientzia hartu eta interbentzio mota ezberdinak planteatzeko. Besteak beste: - Ilogailua jartzeko pilotoa - Komunitateren batean gatazken kudeaketarako prozesua - Etxe hutsen jabeekin alokairuan jarri ditzaten bidelaguntzea	Hirigintza eta Ongizate Batzordea	Aurrekontua	2025-2026	Puntuala

6. HELBURU OROKORRA: Epe ertain-luzera, babes ofizialeko etxebizitza berrien eraikuntza					
<u>Etorkizunari begira oinarri sozialak eta Itsasondoko errealitatera egokituko direnak bermatzea.</u>					
EKINTZA eta AZPI-EKINTZAK (urratsak)		ARDUR. ETA ALIAN.	BALIABIDEAK	DENBORAK	PUNT/PROZES
6.1	Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza sailarekin hartu-emana mantendu, babes ofizialeko etxeen gaiari jarraipena eman eta Ongizate batzordearen ikuspegitik, etxebizitza horietan itsasondoarren beharrei erantzuteko irizpideak txertatu.	Hirigintza eta Ongizate Batzordea		2024-2028	Prozesuala

ZAHARTZAROA

Hirugarren eta azken fokoa, zahartzaroari lotutakoa da. Gaiari dagokionez, ondorengoak dira Ongizate batzordea osatzen dutenen eta adineko herritarren kezak:

- Bizi itxaropenaren luzatzeak eraginda, jada ezin dugu soilik 3. adinaz hitz egin, **3. eta 4. adinaz** mintzatzen ari dira adituak. Adin-tarte bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu, behar eta espektatiba anitzekin. Itsasondo nahi duten moduan zahartzeko baldintzak sortu behar dira.
- **Zahartzaro aktiboa** bultzatzeko herri estrategia bat sortu behar da. Estrategia hori elikatzen joateko garrantzitsua da Jubilatu Elkartearekin harreman markoa mantentzea.
- **Etxebizitzari** dagozkion erronkak, bereziki irisgarritasunari lotutakoak, aurreko atalean jaso dira.
- **Mugikortasuna** da ongizate batzordearen beste kezketariko bat. Herri barruko desplazamenduak (bingora, hileta elizkizunetara, medikutara, etabar) nola antolatu eta erraztu aztertu beharko da.
Herriko mugikortasuna eta irisgarritasuna, hasiera batean, zahartzaroari lotuta mahai-gaineratu bada ere, herri mailako erronka dela aipatu da, **orokorrean herritar guztiengan eragina** duena.
- **Elikadura osasuntsurako eskubidea:** Adinekoek, bereziki bakarrik bizi direnek, elikadura osasuntsua mantentzeko izan ditzaketen zailtasunak aipatu dira eta horiei erantzuteko formulak arakatzeko beharra mahai-gaineratu da.
- **Dependentziari arreta:** Herritarrentzat, bereziki adinekoentzat **Gizarte Zerbitzuetatik kudeatzen diren laguntza eta programak** ezagutzea lehentasunezkoa dela aipatu da. Bestalde, Eskualdeko beste herri batzuekin elkarlanean **Eguneko zentroaren** aukera baloratzen hastea ere garrantzizko jo da.

Guzti hau abiapuntu hartuta, honako helburu estrategiko hauek zehaztu ditugu hurrengo urteotan zahartzaroaren gaiari heltzeko:

1. Gizarte Zerbitzuen herri ezagutzan sakontzea
2. Adinekoen parte-hartze sozio-kulturala babestea
3. Adinekoen elikadura osasuntsurako pausoak ematea
4. Herri mugikortasuna lantzeko kanal iraunkorrak sortzea adineko pertsonen, Ongizate Batzordearen eta Hirigintzaren artean.

7. HELBURU NAGUSIA: Gizarte zerbitzuen herri ezagutzan sakontzea					
<u>Itsasondoko gizarte zerbitzuetako baliabide orokorren ezagutza</u>					
EKINTZA eta AZPI-EKINTZAK (urratsak)		ARDURAK ETA ALIAINTZAK	BALIABIDEAK	DENBORAK	PUNTUALA /PROZESUALA
7.1	Herritar guztientzat hitzaldi informatibo bat antolatzea Itsasondoko Udaletik, Gizarte Zerbitzuen alorrean, eskaintzen diren baliabideen inguruan	Gizarte langilea eta Ongizate Batzordea		2024	Puntuala
7.2	Herriko Gizarte Zerbitzuen inguruko gida egokitu eta zabalpena egin	Ongizate Batzordea	Aurrekontua	2024	Puntuala
<u>Itsasondoko gizarte zerbitzuetako adinekoentzako baliabide orokorren ezagutza</u>					
EKINTZA eta AZPI-EKINTZAK (urratsak)		ARDURAK ETA ALIAINTZAK	BALIABIDEAK	DENBORAK	PUNTUALA /PROZESUALA
7.3	Hitzaldi bat egitea, herriko Gizarte zerbitzuetatik adinekoentzat bideratzen diren baliabide, programa eta diru-laguntzen berri emateko adinekoei eta haien ingurukoei.	Gizarte langilea eta Ongizate Batzordea		2024	Puntuala

8. HELBURU NAGUSIA: Adinekoen parte-hartze sozio-kulturala babestea					
<u>Jubilatu elkartearekin lankidetza dinamikak mantentzea eta errelebo prozesu bat bidelaguntzea</u>					
EKINTZA eta AZPI-EKINTZAK (urratsak)		ARDURAK ETA ALIAINTZAK	BALIABIDEAK	DENBORAK	PUNTUALA /PROZESUALA
8.1	Jubilatu Elkarteko kideekin lan dinamika bat adostea (urtean X maiztasunarekin) eta lankidetza honen helburuak elkarrekin adostea.	Gizarte langilea eta Ongizate Batzordea		2024	Prozesuala
8.2	Jubilatu Elkartearen errelebo prozesuan bidelagun izatea (pertsonek identifikatuz, pertsona hauek elkarteko Juntan sartzeko beharko luketena ezagutuz, etab.)	Gizarte langilea eta Ongizate Batzordea		2025	Puntuala
EKINTZA eta AZPI-EKINTZAK (urratsak)		ARDURAK ETA ALIAINTZAK	BALIABIDEAK	DENBORAK	PUNTUALA /PROZESUALA
8.3	Urtean behin edo birritan antolatua ez dauden adinekoei deialdi bat egitea herrian zahartzearen inguruan izan ditzaketen beharrak identifikatzen jarraitzeko	Ongizate Batzordea		2025	Puntuala Urterokoa

9. HELBURU NAGUSIA: Adinekoen elikadura osasuntsurako pausoak ematea

Adinekoentzat jan-prestatu osasungarri zerbitzu batek izan lezaken interesa ezagutzea

EKINTZA eta AZPI-EKINTZAK (urratsak)		ARDURAK ETA ALIAINTZAK	BALIABIDEAK	DENBORAK	PUNTUALA /PROZESUALA
9.1	Hitzaldi / mahai inguru bat antolatzea adinekoen elikadura osasuntsuaren eta janari prestatuaren inguruan (esperientzia ezberdinak ekarri). Herritarrek interesa / beharra izan dezaketen baieztatu.	Ongizate Batzordea			Puntuala
9.2	Interesa / beharra egongo balitz janari-prestatu programa bat diseinatzeko aukerak aztertzen hasi.	Ongizate Batzordea			Prozesuala

10.HELBURU NAGUSIA: Herri mugikortasuna lantzeko kanal iraunkorrak sortzea adineko pertsonen, Ongizate Batzordearen eta Hirigintzaren artean

Mugikortasunaren inguruan Itsasondoko adinekoek izan ditzaketen beharrak identifikatzea

EKINTZA eta AZPI-EKINTZAK (urratsak)		ARDURAK ETA ALIAINTZAK	BALIABIDEAK	DENBORAK	PUNTUALA /PROZESUALA
10.1	Jubilatu Elkarteko kideekin eta adineko ez antolatuekin partekatzen diren espazioak baliatzea herri mugikortasunaren inguruan hauek izan ditzaketen beharrak identifika eta jasotzeko	Gizarte langilea eta Ongizate Batzordea			Puntuala Urterokoa
10.2	Hirigintzara beharrak transladatzea hauei erantzuteko aukerak baloratu ditzan. Hirigintzaren erantzuna Adinekoek helaraztea	Ongizate Batzordea			Puntuala Urterokoa

4. PLAN OPERATIBOA BEGIRADA BATEAN

URTEROKO EKINTZAK, IZAERA PROZESUALA DUTENAK EDO ERREPIKAGARRIAK DIRENAK

HARRERA EGUNA	
1.1	Erroldatu berriak identifikatu** (erroldatu berri guztiak identifikatzen direla bermatuz).
1.3	Gidaren errebisio eta egokitze lana egin (besteren artean, mapa txertatzea) eta dagozkion hizkuntzetara itzuli.
1.4	Gonbidapen deiak egin.
1.5	Familia etorri berriei Udaletik egin zaien gonbidapena berretsi, erreforzatu.
1.6	Jasotako baieztapenen arabera gidak prestatu (kopurua/hizkuntzak)
1.7	“Harreragileak” ⁴ identifikatu eta hauekin Harrera Egunari dagozkion zereginak lotu.
1.8	Harrera eguna ospatu ⁵ .
1.9	Harrera egunaren ebaluaketa egin.
1.10	**Oharra: Ongizate batzordeko kideek hilero egingo dute herrira etorritakoen jarraipena. Herritar berriren bat identifikatuz gero, hurrengo Ongizate batzorderako gonbitea luzatuko zaie, saioaren hasieran ongietorrirako kokapena egingo delarik.

⁴ Garrantzitsua litzateke “Harreragileen” artean, aurreko urteetan Itsasondora etorritakoren bat egotea.

⁵ Ikus Harrera Egunaren diseinua jasotzen duen Karta Didaktikoa.

2.1	Herriko aniztasunaren ezagutzatik abiatuko gara, errealitatean sakonduz: - Ze komunitate daude herrian? Zeintzu dira beraien ezaugarri nagusiak? - Komunitate bakoitzeko biztanle kopurua, sexuaren eta adinaren arabera. - Non daude herrian kokatuta? Etxebizitzak, aisialdirako eremua - Komunitate bakoitzeko erreferentziako pertsona/k
2.2	Erne, adi egon berariazko ekintzak antolatzeke jatorri anitzeko itsasondorren ezagutzan sakontzeke; hitzaldiak, jaialdiak...
1.2	Itsasondori buruzko oinarriko informazioa jasotzen duen mapa bisuala egin (gidarako zein haundian jartzeko).
2.3	Herrian existitzen diren eragileekin formakuntza/sentsibilizazio kanpaina bat egingo da, begirada kultur-anitza txertatzearen inguruan. Aurretik egindako errealitatearen azterketaren emaitzak hartuko dira oinarri moduan.
6.1	Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza sailarekin hartu-eman mantendu, babes ofizialeko etxeen gaiari jarraipena eman eta Ongizate batzordearen ikuspegitik, etxebizitza horietan itsasondorren beharrei erantzuteko irizpideak txertatu.
8.1	Jubilatu Elkarteko kideekin lan dinamika bat adostea (urtean X maiztasunarekin) eta lankidetzaren honen helburuak elkarrekin adostea.
8.3	Urtean behin edo birritan antolatua ez dauden adinekoei deialdi bat egitea herrian zahartzearen inguruan izan ditzaketen beharrak identifikatzen jarraitzeke
10.1	Jubilatu Elkarteko kideekin eta adineko ez antolatuekin partekatzen diren espazioak baliatzea herri mugikortasunaren inguruan hauek izan ditzaketen beharrak identifika eta jasotzeke
10.2	Hirigintzara beharrak transladatzea hauei erantzuteko aukerak baloratu ditzan. Hirigintzaren erantzuna Adinekoei helaraztea

2024

3.2	<u>IKASTURTE BUKAERAKO BAZKARIA:</u> Jatorri anitzetako gurasoak jakien prestakuntzan parte hartu dezaten animatzea, beren herrialdeetako jakiak guztion artean prestatuz.
3.1	<u>GAU BELTZA:</u> Ospakizunaren esanahiari dagokionez: 1. Itsasondon elkarbizitzen dauden herri ezberdinetan gau honen bueltan ospatzen dituzten erritual eta ohitura ezberdinak ezagutu. 2. Ondoren, egingo diren antzerkietan gaia txertatu. 3. Helburua, gune propioa izatea bakoitzak. Partaidetzari dagokionez: 4. Ohituraren nondik norakoak azaldu eta antzerkietan parte hartzera gonbidatu. ADI! Integraziotik inklusiorako ibilbidea izan behar da, ezin da integrazioan gelditu.
4.1	Etxebizitzaren eta beren egoeraren inguruko azterketa egin. Besteak beste, honako elementu hauek jasoz: - Irisgarritasunaren lehen analisia - Etxebizitza hutsen egoera, hutsik egoteko arrazoiak, okupaziorako beharrak... - Igogailuen instalakuntzari begira: - o Komunitateetan egon ahal izan diren saiakerak - o Identifikatzen diren korapiloak
7.1	Herritar guztientzat hitzaldi informatibo bat antolatzea Itsasondoko Udaletik, Gizarte Zerbitzuen alorrean, eskaintzen diren baliabideen inguruan
7.2	Herriko Gizarte Zerbitzuen inguruko gida egokitu eta zabalpena egin
7.3	Hitzaldi bat egitea, herriko Gizarte zerbitzuetatik adinekoentzat bideratzen diren baliabide, programa eta diru-laguntzen berri emateko adinekoei eta haien ingurukoei.

2025

3.3	<u>SAN JUAN SUA:</u> Gau beltzarekin egin den moduan, ohituraren nondik-norakoen azalpenarekin batera, parte hartzeko gonbita luzatuko zaie jatorri anitzeko herritarrei. Baina, aldi berean, jatorrizko herrietan nola ospatzen duten ezagutu eta pixkanaka herriko ospakizunean nola txertatu aztertuko da.
5.1	Aurretik egindako azterketaren emaitzen sozializazioa egin, kontzientzia hartu eta interbentzio mota ezberdinak planteatzeko. Besteak beste: - Igogailua jartzeko pilotoa - Komunitateren batean gatazken kudeaketarako prozesua - Etxe hutsen jabeekin alokairuan jarri ditzaten bidelaguntzea
8.2	Jubilatu Elkartean errelebo prozesuan bidelagun izatea (pertsonek identifikatuz, pertsona hauek elkarteko Juntan sartzeko beharko luketena ezagutuz, etab.)

2026

3.4	<u>TALO IKASTAROA ETA JANA:</u> Irinarekin egiten diren talo/opil/ogiak herrialde gehienetan prestatzen diren jakiak izanik, ikastaroan hauen prestakuntza ere txertatuko da (urteko 1). Talo jana egiterakoan ere prestatu eta konpartituko dira prestatutakoak.
9.1	Hitzaldi / mahai inguru bat antolatzea adinekoen elikadura osasuntsuaren eta janari prestatuaren inguruan (esperientzia ezberdinak ekarri). Herritarrek interesa / beharra izan dezaketen baieztatu.
9.2	Interesa / beharra egongo balitz janari-prestatu programa bat diseinatzeko aukerak aztertzen hasi.

2027

3.5

JAIEEN OSTEKO PINTXOPOTEA: (jaiak bukatuta, hurrengo 4 ostiraletan)

Jaietarako janaria prestatzeko tokia aprobetxatu jatorri anitzeko herritarrek beren pintxo propioak prestatu eta saltzeko aukera izan dezaten (edaririk ez). Ekimena girotzeko *playlist kulturala* prestatuko da; jatorri anitzeko herritarrei animatuko zaie playlist horretan beren herrietako gustuko abestiak txertatzeko.

5. PLANAREN JARRAIPEN SISTEMA

Plangintza Estrategikoetan, plana bere osatzea bezain garrantzitsua izaten da plana abian jarri eta bere betetze mailaren inguruko jarraipena egitea. Plana tresna erabilgarri bat izango bada, ezinbestekoa da plan horren jarraipen sistema bat zehaztea. **Jarraipen honek helburu ezberdinei erantzuten die:**

- Helburuen betetze maila neurtzea
- Lan dinamika bat ezartzea
- (Beharrezkoa balitz) egokitzapenak egitea
- Egiten dugunetik ikastea
 - Zailtasunak identifikatzea
 - Indarguneak identifikatzea
- Bidean ematen ditugun pausoak / eskuratzen ditugun lorpenak ospatzea

Jarraipen honetan, **hainbat zeregin** izango ditugu:

- Ekintza bakoitzaren ostean ekintza beraren ebaluazioa egingo da. Horretarako, ekintzen jarraipen fitxak eta ekintzak burutzeko ardura dutenek beteko dituzte ekintza burutu eta gero.
- Bestetik, urte bakoitzaren amaieran urte horretako ebaluazio orokor bat egitea oso garrantzitsua da. Urtean zehar egindako eta horien emaitzen balorazio orokor bat egin eta hurrengo urterako ikasteko. Ebaluazio hau Ongizate Batzordeak egingo du, eta foko bakoitzeko helburuen betetze maila ebaluatuko ditu, egindako aurrerapenaren ikuspegi orokorrago bat izateko eran.
- Honek guztiak planaren amaierako ebaluaketa egiteko balioko du, ekintza konkretuen inguruko informazioa emango baitu, baita urtero eginiko balorazio orokorragoen bitartez urteen eboluzioa ere. Hau da, amaierako ebaluaketa elikatzeko ezinbestekoak izango dira.

Hau horrela izanik, **jarraipen sistemarako ondorengo kronograma eta lan-tresnak** proposatzen ditugu:



Noski, urtean zehar ekintza ezberdinak egiten joango gara.

URTE HASIERAKO GALDETEGIA (Ongizate Batzordeak bete beharrekoa)

DATA:

TOKIA:

BILDUTAKOAK:

Egingarria iruditzen zaigu urte honetarako proposatu genuela?

Eskuratu ditugu ekintzak aurrera eramateko beharrezko baliabideak?

Ardurak egoki banatuta daude?

Eta denborak?

Egokitzapenenen bat egiteko beharrik identifikatzen dugu? Zein eta Zergatik?

Besterik:

URJENTZIAKO BILERA (Ongizate Batzordeak bete beharrekoa)
DATA:
TOKIA:
BILDUTAKOAK:

Zeintzuk izan dira urjentziazko bilera hau deitzeko arrazoiak?

Plangintzan aldaketak egiteko beharrean aurkitzen gara? Zer nolako aldaketak?

Nola egokituko ditugu baliabide, arduradun eta denborak?

Besterik:

EKINTZEN BETETZE MAILAREN EBALUAKETA (Ekintza arduradunak bete beharrekoa)			
FOKOA			
HELBURU NAGUSIA			
Ekintzaren kodea eta izena			
Ekintzaren deskribapena			
Arduraduna		Aurrekontua	
Epea			
Jarraipena eta betetze-maila			
Burutzeko arazoak			
Ekintza balorazioa			
Inplikazio eta ondorioak			
Parte hartzea (sexua, adina)	Emakumeak:	Gizonak:	Beste bat:
	Adina:	Adina:	Adina:
Jatorria			

FOKOAREN EBALUAZIOA (Ongizate Batzordeak bete beharrekoa)	
Foko bakoitzaren helburu orokorren betetze maila	

Fokoaren ebaluaketa:

- Egokiak al dira foko bakoitzaren barnean txertatutako helburuak?
- Zein izan da inplikaturako eragile bakoitzeko konpromiso maila?
- Zein arazo egon dira konpromiso hauek betetzeko?
- Egingako ekintzak gizatalde ezberdinei edo perfil ezberdinetako herritarrei zuzendu dira (emakumeak, gizonak, gazteak, adinekoak, migrariak...)?
- Egingako ekintzek onurak ekarri dizkie gizatalde edo perfil jakin bateko herritarrei?
- Herritarren edo herriko eragileen partaidetzarik egon da ekintza hauek betetzerako garaian? Zeinena?
- Egingarriak dira arduradunei esleitutako lanak?
- Ze arazo egon dira Planaren ebaluazio lanak egiteko?
- Ezarritako ebaluazio metodologia, egokia da?

6 . ERANSKINAK

1.go eranskina: HARRERA EGUNAREN DISEINUA

ITSASONDO, HARRERA EGUNA:


DATA: Ekainak 14 ORDUTEGIA: 17:00-19:00

17:00	17:40	ONGIETORRIA eta HARRERA EGUNAREN HASIERA	Arduraduna	Beharrezko materiala
17:00	17:10	ONGIETORRIA		
10'		Plazan elkartzen goazen heinean, gerturatutako pertsona bakoitzari pegatina bat emango diogu bere izena idazteko. Harrera-egileetariko batek edo bik arratsaldean zehar egingo dugunaren berri emango dute. Saioaren iraupena ere aipatuko da. • Elkar-ezagutza dinamika • Itsasondoren inguruko azalpena (gidaren laguntzarekin) • Talde argazkia • Merienda.		Pegatinak Errotulagailuak
17:10	17:40	ELKAREZAGUTZA DINAMIKA		
30'		Munduko mapa erabiliz aurkezpen erronda egingo dugu: Izena, jatorrizko herrialdea eta egitea gustatzen zaidan zerbait kontatuko diet gainontzekoei. Jatorrizko herrialdea (gutxi gora-behera) kokatuko da mapan gometxak erabiliz. Harrera-egileetariko batek edo bik ariketaren ostean gogoeta txikia egingo dute: Munduko toki ezberdinetatik gatoz, distantziak txikiagoak edo handiagoak izan daitezke, baina gaur denok gara Itsasondoar, ekitaldi honen helburua zuei denoi ongi-etorria ematea da. Gure herria ezagutaraztea eta gure herriko bizitzan parte-hartzera gonbidatzea. Poz handia ematen digu zuek gaur hemen egoteak....		Munduko mapa (Haurtxokoko kristalera margotua) Gometxak

17:40	18:00	ITSASONDOREN INGURUKO AZALPENA		
20'		Itsasondoko baliabide gida eta herriko mapa baliatuz, herriko baliabideen inguruko oinarritzko informazioa eskainiko zaie herrikide berrie. (Oharra: Garrantzitsua da azalpenetan ez gehiegi luzatea, azalpenak eman behar dituztenei jakinarazi denbora mugatua izango dutela eta oinarritzkoena kontatzeko. Aipatu, momento informalean egongo dela aukera zalantzak argitzeko)	*Azalpenak emango dituztenak *Itzulpen lanak egingo dituztenak	Gida
18:00	18:10	TALDE ARGAZKIA		
30'		Talde argazkia aterako da. Argazkia herrriko aldizkarian aterako dela jakinaraziko da.		
18:10	19:00	MERIENDA eta ITXIERA		
50'		Jubilatuak prestatutako merienda partekatuko dugu. Garrantzitsua da harrera egunari "ofizialki" itxiera ematea. Zazpirak gerturatzean eskerrak eman bertaratutako guztiei. <u>Balorazio ariketa:</u> Elkar-osagarriak diren bi ariketa planteatzen dira: -Saioaren balorazioa emotikonoekin: Emotiko ezberdinak aukera utziko dira parte-hartzaileek saioari dagozkion alderdi ezberdinak baloratzeko: aukera moduan, antolakuntza, giroa eta edukiak, esaterako. -Zer daramat saiotik: Marrazki, esaldi edo abarren bidez papelote zurian saiotik daramadana kontatzeko aukera.	Jubilatuak	Meriendarako tortilak eta bestelako jatekoak. Papeloteak (2) Emotikonoak Zeloa Errotulagailuak Margoak


2. eranskina: ETXEBIZITZEN INGURUKO DATUAK

AZTERTUTAKO BIZTANLE KOPURUA: **658**



65urtetik gorako pertsona gehien dituzten etxebizitzak zerrenda, etxebizitzak igogailurik ez dutenak:



BEKO KALE 2	%100,00	
GOIKO KALE 4	%66,70	MMB 1
GOIKO KALE 5	%26,70	
GOIKO KALE 7	%40,00	MMB 1
GOIKO KALE 20	%40,00	DESG 1
GOIKO KALE 24	%40,00	
GOIKO KALE 25	%85,70	MMB 2
GOIKO KALE 27	%75,00	
KALE NAGUSIA 2	%100,00	
KALE NAGUSIA 3	%50,00	
KALE NAGUSIA 11	%35,70	MMB 1
KALE NAGUSIA 13	%28,60	MMB 2
KALE NAGUSIA 17	%26,60	
KALE NAGUSIA 32	%33,00	MMB 1
SAN JUANGO BIDEA 3	%03,00	MMB 1
SAN JUANGO BIDEA 7	%07,00	



15URTETIK 32 URTE BITARTEKO **GAZTE KOPURUA** : %13,5 (emanzipazio urteak ,eta etxebizitza egoeragatik emanzipatu ditezkeen gazteak, gurasoekin bizi direlako).


MIGRAZIO TASA: % 9,3. (alokairuan)

ETXEBIDEN ITSASONDOKO ETXEBIZITZA ESKAERA EGINA DUTEN PERFILAK (23):



ESKATZAILEEN ARRAZOIZKO PERFILAK:

- BEREIZI GABEKOAK: % 56,2
- BIKOTEENGANAKO BANATZE PROZESUETAN MURGILDUTA: % 17,40
- GURASO BAKARREKO FAMILIAK: % 13,04
- EZGAITASUN PSIKIKOAK: % 13,04
- MUGIKORTASUN URRIKO EZGAITASUNAK: % 13,04
- FAMILIA UGARIAK: % 4,35



PROIEKTUAREN LIDERGOA



DIRUZLAGUNDUA



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Gobernantza Departamentua



**HERRITARREN
PARTAIDETZA**

PROIEKTUAREN DINAMIZAZIOA

